

## 2. HE: AHOZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA

### INFORMAZIO OROKORRA

<b>EGUNAK</b>	Azaroak 21 - 23 - 28 - 30	<b>IKASGELA/ TOKIA</b>	IVAPeko kanpoko gelategia 16. gela Donostia-San Sebastián kalea, 1 Gasteiz
<b>IRAUPENA</b>	10 ordu	<b>ORDUTEGIA</b>	09:00 - 11:30
<b>ESKATZEKO AZKEN EGUNA</b>	Azaroak 3	<b>ONIRITZI EPEA</b>	Azaroak 6 - 10
<b>IKASLE KOPURUA</b>	12 gehienez	<b>NORENTZAT</b>	B2 mailako azterketa prestatzea helburu duten EAEko herri- administrazioetako langileentzat. Derrigorrezkoa da B1 maila egiaztatuta izatea.
<b>IRAKASLEA</b>	AEK		

### ZER LORTU NAHI DA

**HELBURU  
OROKORRAK**

2. HEko ahozkoak sortzen trebatzea.  
Ahozko horien balorazioa egiteko irizpideak ezagutzea.

**HELBURU  
ZEHATZAK**

Azterketaren aurkezpena egitea.  
IVAPeko proben balorazio-irizpideak azaltzea: komunikagaitasuna, jariotasuna,  
aberastasuna, zuzentasuna.  
Ahozko azterketan erabili beharreko estrategiak lantzea.  
Komunikagaitasuna zer den azaltzea.  
Jariotasunez berba egitea.  
Aberastasanaren gaineko argibide batzuk ematea.  
Zuzentasunari buruzko azalpenak ematea: oinarrizkoak diren akats larriak aipatzea,  
aholkuak ematea.

**GAITASUNAK**

Ikastaroa amaitzen denean ikaslea gai izango da, 2. HEko ahozkoak sortu behar  
dituenean, egitura jakin bati jarraitzeko, eta bide horretan behar dituen tresnak  
identifikatu eta erabiltzeko. Gai izango da, era berean, sortzen ari den testua ebaluatzeko  
eta, behar izanez gero, hobetzeko.

### PROGRAMA ETA EBALUAZIOA

**METODOLOGIA**

Arlo praktikoari emango zaio lehentasuna.  
Bakarka edo binaka egingo da lan.



## 2. HE: AHOZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA

Egindako lana konpartitu eta komentatuko da.

<b>PROGRAMA</b>	<p>Lau egunetan dinamika oso antzekoa izango da: hainbat azalpen, aholku eta jarraibide labur emango dira. Eta jarraian, ahozko azterketaren entseguak egingo dira.</p> <p>Bikote batzuek bakarkako saioa egingo dute, eta beste batzuek elkarreraginaren ariketa. Bikote bakoitzak bukatu eta gero, ikaskideek iritzia emango dute (gai/ez gai, zergatik, zer alde on izan dituen, zer eta nola hobetu ahal duen), eta irakasleak ere bere ikuspuntua emango du.</p> <p>Bikoteak txandakatzen joango dira, ikasle guztiak bakarkako saioak eta elkarreraginarenak egiteko aukera izan dezaten. Halaber, horrela eginda, eta egiten zaizkien oharrak kontuan hartuta, ikasleek izan dituzten alderdi positiboak indartzeko eta txarto egin dituzten puntuak hobetzen saiatzeko parada izango dute.</p>
<b>EBALUAZIOA</b>	<p>Ebaluaketaren helburua: ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete edo lortu direla bermatzea.</p> <p>Ebaluaketan ikastaroan zehar egindako entseguak neurtu eta baloratuko dira.</p>
<b>IKASTAROAREN BALORAZIOA</b>	<p>Ikasleek asebetetze-inkesta beteko dute.</p> <p>Irakasleak balorazio-inkesta osatuko du.</p>
<b>APROBETXAMENDUA</b>	<p>% 80ko bertaratzea eta eskoletan proposatzen diren ariketak egin izana.</p>
<b>ZIURTAGIRI DIGITALA</b>	<p>Ziurtagiri digitala eskuragarri izango duzu posta elektronikoan jakinarazpena jasotzen duzunez aurrera. <i>IVAPeko izapideak / Ziurtatzeak</i> atalean sartu.</p>
<b>BAJA EMATEKO EPEMUGA</b>	<p>Ikastaroa hasi aurreko azken laneguna.</p>
<b>PREZIOA</b>	<p>119,70 €</p> <p>AGINDUA, 2022ko ekainaren 20koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen diru-zenbatekoa ezartzen duena. EHAA, 2022ko uztailaren 8koa, 132. zk.</p>